ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2023IPLE0005**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2023-05-23ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2023ko maiatzaren 23an, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Mikel Galarza Arrue
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Maribi Barandiaran Etxenagusia

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2022KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA
4. TXOSTENAK BERRIKUSTEKO FUNTZIONAMENDU ARAUEN ALDAKETA ESKAERA
5. ELIZAREN ESKAERA
6. SANTA MARINAKO PARETA KONPONTZEKO ESKAERA
7. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2023-05-02ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2023ko 31 eta 43 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2022KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Alkateak 2023ko 42/2023 likidazio dekretuaren berri eman du.

Albizturko Udalak 2022 ekitaldian 141.116,02 €-ko emaitza negatiboa izan du doitu aurretik eta 43.355,18 €-koa doitu ondoren.

Zorpetze maila %3,57koa da, eta 2024. urteko 2. hiruhilerako kreditua erabat amortizatzeko asmoa dago.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 281.371,42 €-koa izan da.

4. TXOSTENAK BERRIKUSTEKO FUNTZIONAMENDU ARAUEN ALDAKETA ESKAERA

Albizturko Udalak espedienteak berrikusteko eskaera asko jaso ditu azken aldian, eta horrek lan handia suposatzen dio Idazkari Kontu-hartzaileari (espedienteak topatu, txukundu, fotokopiak atera, datu pertsonalak ezabatu, orri guztiak banan bana seilatu, sinatu, …), Albizturko Udalaren funtzionamendu arrunta oztopatuz.

Ondorioz, espedienteak berrikusteko funtzionamendu arauak ezartzea adostu zen 2023ko urtarrilak 31ko Udaleko Ohiko Bilkuran, Albizturko Udalak normaltasunez funtzionatzen jarrai zezan:

- Ostegunetan emango da zerbitzua 9:00 – 10:00 artean.
- Txanda aurrez eskatu beharko da (beranduenez astelehenean).
- Eguneko txanda 1 emango da eta espediente 1 aztertzeko aukera egongo da.
- Presentziala izan behar du (ez da enkarguz kopiarik egingo).
- Espedienteak ikuskatu bitartean Idazkari Kontu-hartzailea presente egongo da.
- Datu babeserako legea dela eta ez da utziko argazkiak ateratzen.
- Kopiak ateratzeko aukera emango da: Gehienez eguneko 100 kopia eta ordenantza fiskalak jarraituz kobratu egingo da.
- Kopia horietan datu pertsonalak ezabatu egingo dira banan bana.

Presentziala izan beharrak arazo batzuk sortu ditu, herritar askok lana dutelako ordu horretan, eta Udalak baldintza hori kentzeko eskaera jaso du.

Baina era berean, presentziala izatearekin herritarrek beraien eskaerak zenbat lan eta denbora suposatzen zuen ikustea bilatzen zen, askotan horren jakitun ez direnaren ustea baitago.

Ondorioz, hemendik aurrera ere presentziala izaten jarraitzea adostu da, baina herritarraren ordez ordezkari batek etorri ahal izango du behar den moduan justifikatuz gero.

5. ELIZAREN ESKAERA

Albizturko Elizako aterpean arriskuan zegoen zutabea konpondu dute, lata berria eta teila berria jarriz.

Ordainketak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntza eta herritarrek egin dituzten ekarpenak izan ditu Elizak, eta 10.000 €-ko mailegua eskatu du.

Aterpe horrek herritar denei babesa ematen dienez eta herritar denek erabiltzen dutenez, Parrokiako Ekonomia Batzordeak Albizturko Udalari ere ahal duen neurrian laguntza eskatzea erabaki du.

Hautetsiak prest agertu dira Elizari obra hau ordaintzen laguntzeko, baina beste gai batzuk ere hitz egiteko ditugunez (Eliza ondoko lursailaren erosketa, ...) egokiena apaizarekin bilera egitea izango dela adostu dute.

6. SANTA MARINAKO PARETA KONPONTZEKO ESKAERA

2021eko ekainean Santa Marinako eskola etxea berritzeko lanak egin zituztenean, beheko plaza eta eskola etxearen ondoan dagoen lurzorua bereizten dituen horma kaltetu zen, pitzadurak sortuz.

Ondorioz, horma ez dago ondo eta inguruan dabilen jendearentzako arriskutsua izan daiteke.

Albizturko Udalak behin baino gehiagotan jaso du horma konpontzeko ondoko lursailaren jabeen eskaera, eta azkena 2023ko apirilaren 22an izan zen.

Yoseba Maroto-ri (Albizturko Udaleko arkitektoa) hormaren kalteak baloratzeko eskatuko zaio, eta Iban Gonzalez-i (Albizturko Udaleko langile balioanitzduna) esango zaio konpontzeko (gai ikusten bada).

7. GALDERA ERREGUAK

- Nagore León Plaza-ren eskaera: Albizturko Udalari inguruko belargune bat alokatzeko eskatu dio, haurrak futbolean leku egoki eta seguru batean ibil daitezen. Kontua da inguruan ez dagoela horretarako egokia den belargunerik, eta frontoia dela hautetsien ustez futbolean ibiltzeko leku egokiena. Inguruko herrietan begiratuko dugu zein den sistemarik egokiena frontoian porteriak jartzeko.

- Iturri Ondo etxearen ondoko aparkalekuaren jabetzari buruzko erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa: Aste honetan jakin dugu Iturri Ondo etxearen ondoko aparkalekuaren jabetzari buruzko erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan sartu dutela Iturri Ondo etxeko jabeek.

- **Hilerriko nitxoen ustutzea:** Francisca Pellejero Leunda eta bere semearen gorpuzkiak nitxotik ateratzekoan usteldu gabe daudela ikusi dute. Familiak ez ditu erraustu nahi eta beste 15 urtez nitxoan edukitzeko aukera eskatu dute. Salbuespen moduan eskaera onartzea erabaki dute hautetsiek.

KONTUEN BATZORDE BEREZIA

1.- 2022ko Kontu Orokorraren txostenaren argitalpena onartzea.

Kontuen Batzordeak aho batez honakoa onartu du:

Lehena.- 2022ko Kontu Orokorraren txostena jende aurrean jartzea eta GAOn horren berri ematea.

Osoko bilkura, 20:30tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2023ko maiatzaren 4ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 09:34:29 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.25 10:07:52 +02'00'